

SOLASEAN

Garai batean, erreka eta ibaiak garbi eta garden jaisten ziren haretan, zerua hodeiek soilik iluntzen zuteneko haretan, izokiak presetan jauzika beren sorlekua bilatu nahian ipiltzen ziren haretan eta pisua urria bezain eskasa zen haretan, oilarraren kukurrukuak eta errementarien mailuek hurdina landu eta hezitzean sortzen zuten zaratek esnatzen zuten gure Euskal Herria.

Erreka eta ibaiek taxuezinezko kolore itsusia hartu zuten heinean, zeruko hodeiek ura baino zerbait gehiago eramaten hasi zirenean, izokinek gure hibaiak ei ihes egin zioten heinean, eta pinua mendi eta zelaien jabe

egin zen heinean, oilarra mutatuaz joan zen eta errementariak, isilik inor molestatu nahi izanik ez, atzeko atea hartuta oroitzapenean linbora zuzendu ziren

Gaur linbora joateari oraindik uko egiten dion errementari bat, azkena aqian, ekartzen dugu gure orrialdetara bere bizia, bere lana azal diezagun. Gabino Bereziartu, 78 urte, Lazkaotarra.

Elhuyar.- Noiz hasi zinen lanean?

Gabino Bereziartu.- Lanean? ni? Eskolan nentzela, orduan ez zegoen tailerrean urik eta "Manuelene"-ko errekatik hor ekartzen nituen bi balde bizkarrean harturik...

14 urte ez nituen oraindik.



Gabino, atzean sutegia

El.- Norekin ikasi zenuen?


G.B.- Aitarekin. Harekin ikasi nuen nik dakidana... Aitak "Albisuenen" ikasi zuen eta harek egin zuen etxea eta tailerra.

El.- Zer egiten zenuten garai hartan?

G.B.- Gehiena perraketa eta gurdia ere bai eta baserritarako erreminta, era askotakoa. Nahiko lan, gehiegi, 7 laqun arituginen garai batean. Lazkaon ez zegoen beste perratzailerik A-taunen ezta ere, baina Ordizia eta Beasainen bai.

El.- Lan asko orduan...

-100-



Zenbait erreminta ingudearen ondoan. Ezkerretik eskuinera, taieia, eskumailua, asentadera meharra, asentadera eta porra

Elhuyar, 8, 1, 1982

G.B.- Bai, nahiko lan izaten zen guzti hori egiten. Gu jaikitzera ko hor egoten zen ilada atean zai, eta askotan gure aita zenak kafea ematen zien. Pentsa ezazu, Bizkaian saltzen genuen ere. Gurdia eramanda nago ni Bizkaiara.

El.- eta orain?

G.B.- Orain oso gutxi esan daiteke batere. Garai batean gurdia erabat utzi genuen eta berandugo perraketa ere bai. 1942.ez gero bi lagunek anaia, eta biok besterik, ez dugu lanik egiten.

El.- Zer lan egiten duzue?


G.B.- Ba, kurrikak egiten ditugu, handiagoak, txikiagoak. Enkarguz egiten dugu lan. Erreminta bereziak egiten ditugu.

El.- Besterik ez?

G.B.- Orain perraketa nuloa dela esan daiteke... Lehenago ez genuen kurrikarik egiten. Gurrpilak eta behiak gastatu zirenean, orduan hasi ginen.

El.- Teknika asko aldatu al da zu hasi zinetetik hona?

G.B.- Bai, lehen auspoa, sutegia, ingudea eta perratokia genuen



Azken urteotako lana: kurrikak



Perratokia

besterik ez. Ura ere errekatik e
karri behar genuen. Orain ura
sartu dugu eta argindarra ere
bai... Lehen opatxurrarekin egi-
ten genuen lan, gero tornua sar-
tu genuen eta mailu handia baita
ere.

El.- Zein lan-materia erabili di-
tuzue?

G.B.- Burdina, beti burdina...
ez dugu beste materialik inoiz
erabili. Sutegirako lehen egu-
rrezko ikatza erabiltzen genuen

baina aspalditxotik harrikatza
erabiltzen duou.

El.- Bukatzeko, ezaqutzen al du
zu zu bezala dabilen besterik?

G.B.- Ez, Beasaingoa jubilatu,
Ordizikoak utzita, ez dago ni be-
zala lan egiten duenik...

Eta bihotzean tristurazko za-
pore mingotsa dugularik bere
kastako azkena, garai bateko
Euskal Herriaren ikurrina, oroi
tzapen alaienetan uzten dugu.